

Erasmus –Bratislava

2013ko irailaren 19an hartu nuen Hondarribiko aireportutik Bartzelonazko hegazkina. Han pare bat ordurik itxaron eta nire helmugarako bidea hatuko nuen, Bratislava. Sentimendu gazi-gozoez murgildurik bidaiari ekin nion. Karrerako aurreko 3 urteetan etxetik kanpo bizi izan nintzen bai, baino honako honetan desberdina izango zen. 6 hilabete osotarako alde egingo nuen etxetik, familia, lagunak eta herriko kideak ikusi gabe, guztiz arrotz izango nintzen herrialde batera nindoan. Ni arrotz eta herrialdea ere arrotz.

Slovakia. Non dago Slovakia? Slovakia ala Slovenia? Ala Txekoslovakia? Ze herrialde da hori? Hori da jendeak behin eta berriz egiten zidan galdera, beno eta onartu beharra dut nik ere egiten niola nire buruari. Baina aurrera. Poliki-poliki nire helmugara iristen ari nintzen. Vienara hartu nuen hegazkina, merkeagoa baita. Izan ere Bratislavako aireportua oso txikia da eta hegaldi gutxi jasotzen ditu. Vienako aireportutik orduro autobusak ateratzen zirela banekien eta hala izan zen. Eta hortxe nindoan, ttiriki- ttarraka Bratislavatik hurbilago. Bratislavako autobus geltokian Buddya izango nuen zain. Hala Buddyarekin elkartu eta gaua pasako nuen Hostelera lagundu ninduen eta bide batez unibertsitatea non geratzen zen azaldu zidan, baita hiriko alde zaharra. Eta hori izan zen nire Buddy-a ikusi nuen lehen eta azken aldia!!!

Hurrengo egunean unibertsitaterako bidea hartu nuen goizean goizetik egin beharreko paper guztiak bete ahal izateko eta bide batez ikasle gehiagorekin elkartzetik banuen ikusteko, ez bainuen inortxo ere ez ezagutzen. Ez nuen zorte handiegirik izan egia esan. Arratsalderako eskoziar batekin geratua nengoen, bere etxean asteburua pasatzeko asmoa bainuen. Izan ere, Bratislavara joan baina 3 egun lehenago jakin nuen ikasle egoitza batean onartua izan nintzela. Arazo ugari eduki nituen horrekin. Slovakian ikasle egoitzetan bizi dira ikasleen gehiengoa, askozaz merkeagoa baita. Hilabetean 65 euro ordaintzen genuen gela. Primeran zegoen prezio aldetik. Hala, astelehenean bertan nire ikasle egoitzako gelara joan nintzen. Eta depresioa sartu zitzaidan horrekin batera. Txina town zen hura. Sekulako eraikin altu pila, denak ere osotara zaharkituak... ez zitzaidan batere ez gustatu. Baina hor hasi nintzen Erasmusean murgiltzen. Gela beste bi katalanekin elkarbanatzea tokatu zitzaidan. Haiekin ongi etorri jaira joan nintzen eta beste Erasmus pila bat zeudela ikusi nuen. 50 bat izango ginen. Denak ere ingeniarietza eskolakoak ginen. Banekien bazirela beste erasmus batzuk beste unibertsitateren batean. Elkar ezagutzeko jolas batzuk antolatu zituzten, afari bat eta parranda. Hor ezagutu nituen nire erasmus taldeko kideak izango zirenen gehiengoa. Elkar kontaktatzeko bidean elkarbanatu eta hurrengo egunetarako geratu ginen. Katalan, Germaniar, Bulgariar, Lituano, Frantses, Turko...denetarik zegoen. Baina hori bai, espainiarrak gehienbat! Erdiak baina gehiago Galego eta Katalanak ziren. Plaga bat.

Hasiera hura asko kostatu zitzaidan. Hizkuntza arazo handi bat zen niretzat. Nire eskolako ingeles xumearekin joan nintzen eta jendea ulertzea eta heuren ni ulertzea asko kostatzen zen. Ezinezkoa. Horrekin dezente agobiatu nintzen. Baina aurrera egin nuen. Bi aukera nituen, dagoeneko sortu eta itxia zegoen “españolen” taldearekin batu edo aurrerago “international team” bezala bataiatuko genuen taldearekin batu. Eta bigarrena aukeratu nuen. Nire helburu nagusia ingelesa ikasi eta lantzea zen, eta bide batez kultura desberdinetako jende desberdin

ugari ezagutzea. Eta hori izan da erasmuseko gauzarik hoberenetariko bat, jende desberdin hori guztia ezagutu ahal izana.

Unibertsitatean klaseetan erasmus bakarra nintzen gehienetan, ikasgai baka nuen turko eta lituano batekin amankomunean. Baina hori ez zen arazorik izan. Klaseetan greziar eta sirioak nituen, baita serbiarrak ere. Slovakia baino ekialderago dauden herrialde askotatik joaten dira bertara ikastera. Merke eta ikasketa maila onekoa omen da eurentzat.

Eta merkea da oso ere guretzat. Bertan bizitza oso merkea zen. Han egon nintzen denboraldi osoan 5 aldiz sukaldatuko nuen gehienez jota! Egunero kanpoan jaten genuen. Izan ere 1-2 eurotan jateko aukera asko genituen. Garestiago ateratzen zitzaigun janaria supermerkatuan erosi eta prestatzea. Izan ere supermerkatuetako prezioak hemengoen antzerakoak ziren. Jantoki ugari zeuden eta esan dudan ere 1-2 euroren truke primeran jaten zen. Hori bai zopa, arroza eta oilaskoa gehienetan. Aipatu beharrekoa janarian, arraina. Munduko arrainik txarrena jan nuen bertan! Eta txerri egosirik onena ere! Garagardoa ere aipatu beharrekoa... Han ez zen kaña ertain, txiki ez ezer... Han litro erdiko kaña zenuen beti! Garagardo goxo-goxoa eta euro baten truke. Esaten genuen ba, Bratislavan gehiengoak euro bat baino ez du balio! Egunero elkartzen ginen hiri erdigunean kañatxo batzuk hartzeko, bat, bi, hiru...eta garagardoz aspertzen baldin bazinen Borovicka pixka bat, bertako edari tipiko bat.

Hala, herrialdea merke-merkea izatean inguruak ezagutu eta bisitatzeko primerako aukera izan nuen. Aipatu beharra dut Bratislava egon naizen hiririk itsusiena izan dela. Izan ere ez du ezer. Hiri pasatzen nuen lehenengo asteburuan ezagutu nuen, eta lasai-lasai ibilita. Hala bada Vienara lau bat aldiz joan nintzen. Izan ere Bratislavatik ordu betera baino ez dago. Austrian bertan beste txoko batzuk ere bisitatu nituen. Txekiar errepublikara ere alde egin nuen pare bat aldiz, Praha eta Brno bisitatzeko adibidez. Poloniara bidaia ere egin genuen. Bertan Auswitch bisitatu genuen. Bidaia paregabea izan zen. Hungariarako muga ere gurutzatu genuen, Budapesten egun oso bat termetan pasaz (paregabea!!). Serbia ere bisitatu genuen. Herrialde honek hitzik gabe utzi ninduen. Sekulako pobrezia dago oraindik ere, baina ederra baino ederragoa. Hala ere Slovariaren errepublika ere bisitatu genuen. Herrialdearen gehiengoak ezagutzeko aukera izan dut eta paregabea da. Hiri nagusia itsusia baino itsusiago iruditzen bazait ere herrialdea zoragarria da! Mendi, herritxo eta txoko bikainak ditu. Hala ere konpainia bikainean egin izanagatik izango ziren agian bidai eta herrialde guztiak bikainak. Bidaia guztietara 10 bat joaten ginen, lehenago aipatu dudana "international team"-eko kideak beti ere.

Hala bidai baten eta bestearen artean bueltatzeko ordua iritsi zitzaidan. Eguberriaren etxera buelta egin banuen ere otsailean Bratislava behin betiko uzteko garaia iritsi zitzaidan. Erasmusaren hasieran, oraindik egokitu gabe nengoenean eguberri aurretik Bratislava behin betiko amaitzeko gogoia nuen. Denborarekin ordea ez. Buelatzeko ordua nuen eta sentsazio gazi-gozoz bete nengo berritako ere. Etxera bueltatzeko gogoia, familia, lagun eta herriko jendeaz berritako elkartzeko gogoz, Euskal Herriaz gozatzeko gogoz. Baina Bratislavan eginiko lagun guztiak behin betiko uzteko sekulako penaz. Eguberri osteko egonaldia arraroa izan zen. Poliki-poliki gehiengoak alde egiteari ekin genion. Gutxi batzuk geratzeko ziren bertan. Horien artean nik eginiko lagun minetako hiru. Batek alde egin behar zuenero afari bat antolatzen genuen. hasierako, bitarteko eta bukaerako kontuak genituen mintzagai aldioro. Eta aldioro elkarri hitzeman genion noizbait denok elkartuko ginela nonbait. Elkarren berri izaten

jarraituko genuela. Eta ez ginela sekula elkar ahaztuko. Hilabete baino gutxiago igaro bada ere bertatik alde egin eta hau idazten dudanetik gogoan ditut bertako lagun guztiak. Bi astez behin denok elkar ikusteko hitzorduak hitzartu ditugu skype bidez. Eta horrelako gauzak halako sentimenduak izatean baino ez dira ulertzen eta egiten.

Eta lagun batek esan zuen bezala “ during your erasmus, the time stops for a while, so you have new experiences, memories and stuff like that. So while people go on, you stay at the precious moment, so you win half a year while you grow up and get wizer but physically you stay at the same time. “ eta egia borobila. Besterik ez.

Kanpora joatea pentsatzen ari zareten guztioi anima zaitezte. Utzi beldurrak alde batera eta aurrera! Hasiera gogorra izan badaiteke ere geroak beteko zaitu. Dituzun helburuak zeintzuk diren baldin badakizkizu aurrera eta disfrutatu! Jende zoragarria dago hor kanpoan zu ezagutzeko prest, eta zuk ere sekulako jende pila duzu hor ezagutzeke. Izan ere hori da Erasmusaren gauzarik zoragarriena. Bidean topatzen dituzun pertsona desberdin guztiak. Izan ere horiek topatuko ez bazenitu erasmusa ez litzateke erasmus izanen!

Besarkada bana,

Goretti Iriarte